GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARENTZAKO LANAK INPRIMATZEKO ETA KOADERNATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, sarritan, inprimatze eta koadernatze lanak egin behar izaten ditu. Horietako lan batzuetarako bitarteko propiorik ez daukanez, kanpoko enpresekin kontratatu behar ditu zerbitzu horiek. Lanen maiztasuna eta eman beharreko erantzun azkarra direla eta, are kontratazioa gardentasunez eta arlo horretako enpresei aukera berberak emanez zertu behar dela, jorratzen den kontratazio prozedurak ahalbidetu beharko du zerbitzuak modu arin eta egoki batez kontratatu ahal izateko behar besteko enpresa kopuru bat aukeratzea.

2. KONTRATAZIOAREN XEDEA

Kontratazio honen xedea esparru akordioa zatituta dagoen lau sorta bakoitzerako hiru inprimategi aukeratzea da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatzen dituen inprimatze eta koadernatze lanak egin ahal izatearren.

Esparru-akordio honetatik kanpo daude dauzkaten ezaugarriak direla eta prozedura espezifiko batez kontratatzea komeni den argitalpenak.

3. KONTRATAZIO PROZEDURA

Kontratazioa esparru-akordioaren modalitateaz izapidetuko da. Horrela, prozedura bi fasetan bereiziko da.

Lehenean, esparru-akordioari dagokionean, Aldundiak 3 inprimategi aukeratuko ditu gutxienez baldintza-agiri honen 6. atalean deskribatzen diren sorteetarako aurkezten diren eskaintza ekonomikoen arabera. Administrazio klausula partikularren agiriaren 19. atalean deskribatzen da esparru-akordio hau gauzatuko den enpresak aukeratzeko prozedura.

Bigarren fasean, enpresak aukeratu ostean, lan zehatz bakoitzaren kontratazioa egiteko eskaintzak eskatuko zaizkie kasuan kasuko lan motari dagokionez puntuazio altuena izan zuten 3 enpresei, eta ezarritako baldintzak betetzen dituen eskaintzarik merkeenari esleituko zaio lana. Bigarren fase honetan, eskaintzek ezingo dituzte gainditu lehen fasean esleitutako zenbatekoak, non eta eskatzen den lanak gainditzen ez duen hartan jasotako bolumena, neurria, materialaren kalitatea edo manipulazio lana.

Esparru-akordioko esleipenak ez dakarkio Aldundiari lan zehatz edo minimoak kontratatzeko inolako konpromisorik, ezen kontratazioa beharren eta aurrekontu-bitartekoen arabera egingo baita. Horregatik, baldintza-agiri honetako 5. atalean adierazten diren lan kantitateak orientaziotzat hartu behar dira, ez baitakarte inolako gauzatze konpromisorik.

4. SORTA ZATIKETA (LAN MOTAK)

Egin beharreko lan motak honakoak dira:

1. sorta	Liburuak
2. sorta	Aldizkariak eta foiletoak

3. sorta	Karpetak, tolesgarriak eta kartelak
4. sorta	Autokopiatiboak

5. LAN ZENBATESPENA

Tirada txiki eta ertainetan urtean atera ohi diren lanen zenbatespena honakoa da:

		Kopurua
1. sorta	Liburuak	15
2. sorta	Aldizkariak eta foiletoak	15
3. sorta	Triptikoak, tolesgarriak eta kartelak	25
4. sorta	Autokopiatiboak	10

6. ESKAINI BEHARREKO LAN MOTA NAGUSIEN DESKRIPZIOA

Eskaini beharreko lan mota nagusiak honakoak izango dira:

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inprimatze, koadernatze (behar denean) eta manipulatze lanak izango dira.
- Lan guztiak batera eta paketatuta joango dira, eta kutxetan emango dira, Gipuzkoako leku batean.
- Liburuak banan bana plastikoz bilduta emango dira.

INGURUMEN EZAUGARRIAK

Esparru akordio bat denez, ezin dira agiri honetan jaso argitalpen zehatzen ingurumen baldintza guztiak, baldintza horiek argitalpen bakoitzaren ezaugarrien araberakoak izango baitira. Horregatik, ezaugarri teknikoen agiri honetan ingurumen baldintza orokorrak ezartzen dira, ondoren beste baldintza batzuekin osatu daitezkeenak, argitalpen bakoitzaren kasuan. Nolanahi ere, argitalpen zehatzen ezaugarrien oinarri izango den printzipioa hauxe da: lehentasuna emango zaie ingurumen ezaugarriei, hala nola paper birziklatuaren erabilera, formatu eta gramaje estandarizatuen erabilera, tinta jakin batzuen erabilera, eta abar.

Ingurumen baldintza hauek bete behar dira:

- Offset inpresio sistema CTP (computer-to-plate) motakoa izango da, fotolitoen prozesua desagerraraziz.
- Oinarrizko tintek (beltza, horia, zian eta magenta) ez dute metal astunik izango (kadmioa, merkurioa, beruna eta kromo hexabalentea), 100 ppm-tik gorako kontzentrazioetan.
- Ez da plastifikaziorik ez bernizik erabiliko, horiek olio minerala badute oinarrian edota disolbatzaileak badituzte.
- Bilgarriek ez dute metal astunik izango (kadmioa, beruna, merkurioa edo kromo hexabalentea), 100 ppm-tik gorako kontzentrazioetan.

- Bilgarria paperezkoa/kartoizkoa izango da, % 80ean birziklatua.
- Gutun-azal indibidualak erabiliz gero, gutun-azalen papera birziklatua izango da % 80ean.
- Banakako bilgarri erretraktilak erabiliz gero, horretarako erabiliko den plastikoa ez da halogenatua izango.
- Enkoadernatzeko, kadmiorik gabeko grapak erabiliko dira, orri kopuruaren arabera posible baldin bada behintzat.
- Esleipendunak bermatuko du inprimatze lanetan sortutako hondakinak behar bezala sailkatzen direla eta tratatzen direla, batez ere hondakin bereziei dagokienez, eta berariaz hauei:
  - Tinta edo toner kartutxoen hondakinak eta ontziak.
  - Garbiketa likidoen hondakinak eta ontziak
  - Garbiketarako trapu zikinak
- Kontratuaren hasieran, esleipendunak hondakin berezien onarpen orriak aurkeztuko ditu, enpresak erabiltzen duen hondakin kudeatzaile baimenduarenak.

1. MOTA: LIBURUAK INPRIMATZE ETA KOADERNATZEA:

Aldundiak inprimatze lanerako behar den PDF formatuan emango ditu fitxategiak. Inprimatze, koadernatze eta manipulatze lanak enpresak egin beharko ditu.

01. LIBURU ESTANDARRA KOLORETAN 17 x 24: 17 x 24 zm-ko liburuak dira, barneko papera couché matea da, 170 g-koa, 4+4 koloretan inprimatua + berniza, eta azala Ibercote kartoi mehezkoa, 350 g-koa, 4+0 koloretan inprimatua eta alde batetik plastifikatua, eta 14 zm-ko azal-hegalak dauzka. Paper-azalezko koadernatzea, hariz josia. Plastikoz bilduta.

02. LIBURU ESTANDARRA KOLORETAN 21 x 30: 21 x 30 zm-ko liburuak dira, barneko papera couché matea da, 170 g-koa, 4+4 koloretan inprimatua + berniza, eta azala Ibercote kartoi mehezkoa, 350 g-koa, 4+0 koloretan inprimatua eta alde batetik plastifikatua, eta 14 zm-ko azal-hegalak dauzka. Paper-azalezko koadernatzea, hariz josia. Plastikoz bilduta.

03. LIBURU ESTANDARRA ZURI-BELTZEAN 14 x 21: 14 x 21 zm-ko liburuak dira, barneko papera offseta da, 90 g-koa, hezur-kolorekoa beltzez inprimatua, eta azala kartoi mehezkoa, 250 g-koa, 4+0 koloretan inprimatua eta alde batetik plastifikatua, eta 8 zm-ko azal-hegalak dauzka. Paper-azalezko koadernatzea, hariz josia. Plastikoz bilduta.

2. MOTA: FOILETO ETA ALDIZKARIAK INPRIMATZEA:

Aldundiak inprimatze lanerako behar den PDF formatuan emango ditu fitxategiak. Inprimatze, koadernatze eta manipulatze lanak enpresak egin beharko ditu. Foileto eta aldizkariak lodieraren arabera taldekatuta plastikoz bilduko dira.

01. ALDIZKARI ESTANDARRA A4: A4 neurriko aldizkaria, couché paper distiratsua, 115 g-koa, 4+4 koloretan; azala couché paper distiratsuzkoa, 250 g-koa, 4+4 koloretan.

02. FOILETO ESTANDARRA A5: 15 x 21 zm neurriko foiletoa, couché paper matea, 135 g-koa, 4+4 koloretan; azala couché paper matezkoa, 135 g-koa, 4+4 koloretan.

03. TURISMOKO ALDIZKARIA: 14,8 x 23 zm tamainako aldizkaria, paper estukatu dizdiratsuan 80 g, 4+4 koloretan. Portada paper estukatu dizdiratsuan 150 g, 4+4 koloretan. Kaballetean josita 2 grapekin. 100 orrialde + portadak.

04. EGUTEGIA: Paretako egutegia 33 x 48 zm-ko tamaina, Mediaprint Silk 170 g-ko paperean. 7 lamina, 4+4 koloretan. Euskarria estukatu 350 g-ko paperean, 4+4 koloretan inprimatuta eta Wire-O beltzarekin enkuadernatuta.

05. ONDAREKO JARDUNALDIEN ALDIZKARIA: A5 tamainako aldizkaria Cyclus Offset 115 g-ko paperean eta 4+4 koloretan inprimatua. Portada, Cyclus offset 170 g-ko paperean, 4+4 koloretan inprimatua. Enkolatuta. 126 orrialde + portadak.

3. MOTA: TRIPTIKOAK, TOLESGARRIAK ETA KARTELAK INPRIMATZEA:

Aldundiak inprimatze lanerako behar den PDF formatuan emango ditu fitxategiak. Inprimatze, koadernatze eta manipulatze lanak enpresak egin beharko ditu. Triptikoak, kartelak, karpetak eta tolegarriak lodieraren arabera taldekatuta plastikoz bilduko dira.

01. TRIPTIKO ESTANDARRA: 21 x 10,5 zm neurrikoa formatu itxian, couché paper matea, 150 g-koa, 4+4 koloretan.

02. TOLESGARRI ESTANDARRA, 6 ATAL, akordeoian 21 x 9,8 zm neurrikoak: 21 x 9,8 zm-koa formatu itxian, couché paper matea, 150 g-koa, 4+4 koloretan.

03. KARTEL ESTANDARRA 48 x 68: 48 x 68 zm-ko neurria, couché paper distiratsua, 150 g-koa, 4+0 koloretan.

04. KARPETA ESTANDARRA: 32 x 23 zm-ko neurria formato itxian, offset kartulina, 185 g-koa eta 1+0 tintekin.

4. MOTA: TRIPTIKOAK, TOLESGARRIAK ETA KARTELAK INPRIMATZEA:

Aldundiak inprimatze lanerako behar den PDF formatuan emango ditu fitxategiak. Inprimatze, enkolatze eta beste manipulatze lanak enpresak egin beharko ditu.

01. JOKU AUTOKOPIATIBO ESTANDARRA: A4 tamainako eta 60 g-ko paper txuri autokopiatiboan egina 1+0 (tinta bat).

02. 347 Ogasun EREDUA: 4 autokopiatibo joku ezberdin (1ª+3ª txuriak 60 g,Tintak 1ª: 1+0 eta 3ª: 1+1) karpeta batean sartuak (Offset 100 g, A3 tamaina, Tintak: 1+1) poltsa baten barruan sartuta (Antalis 806 A 200: 229 x 324 mm txuria, 1+0 inprimatua). 50 -naka plastikoz bilduta eta kaxetan. Dena pantone berdinarekin inprimatuta: BLUE072.

03. 036 Ogasun EREDUA: 7 autokopiatibo joku ezberdin (5 joku 1ª+3ª eta beste 2 joku 1ª+2ª+3ª txuriak 60 g,Tintak 1ª: 1+0 2ª: 1+0 eta 3ª: 1+1) karpeta batean sartuak (Offset 135 g, A3 tamaina, Tintak: 1+1). 50 -naka plastikoz bilduta eta kaxetan. Dena pantone berdinarekin inprimatuta: 484U.

04. 390 Ogasun EREDUA: 3 autokopiatibo joku ezberdin (1ª+3ª txuriak 60 g, Tintak 1ª: 1+0 eta 3ª: 1+0) bi karpetetan sartuak (Offset 135 g, A3 tamaina, Tintak: 1+1). 50 - naka plastikoz bilduta eta kaxetan. Dena pantone berdinarekin inprimatuta: BLUE072.

Donostia, 2025ko uztailaren 18an

INPRIMATEGI ATALEKO BURUA



Sin.: Asier Marin Casanova

ZERBITZU OROKORREN BURUA



Sin.: Marta Blanco Suarez